



Barakaldo
CIUDAD · HIRIA



PRENTSA OHARRA

Barakaldon, 2021eko urriaren 1ean

VI. BAFEST Jaialdia, Barakaldoko kaleetan banatutako emakume argazkilarien 6 erakusketarekin hasi da

- **Urriaren 1etik 31ra bitartean, Barakaldoko udalerriak emakume zigilua duen argazkigintzari irekiko dizkio bere txokoak, jende guztiarentzako doako jarduera paraleloz osatutako programazio osoarekin, aurtengo eskaintza osatzeko.**
- **Sail Nagusiko Paloma Rincon, Ione Saizar, Tatjana Schlör, Deneb Martos eta Denisse Ariana Pérez argazkilariekin eta Emakume Argazkilarien BAFEST 2021 Lehiaketako 6 finalistekin, María Azkarate, eta Cris P. Lareo, Andrea Aguilera, Sara Santos, Manuela Lorente, Rocío Bueno eta Elba Haxel.**

Emakumezkoen zigilua duen argazkigintzarik onenak Barakaldoko kaleak hartu ditu jada, eta hilabete osoan zehar, urriaren 31ra arte, luzatuko da. Izan ere, gaur aurkeztu da era ofizialean VI. BAFEST Jaialdia. Barakaldoko Udalak bultzatu du, Fotopop Producciones Culturales-en eskutik, eta argazkilaritza jende guztiarengana hurbiltzea du helburu, udalerriko eguneroko bizitzako espazio komunetan jarritako argazkien bidez. Amaia del Campo Barakaldoko alkateak, Miren Pastor jaialdiko komisarioak, Mikel Etxebarria Bizkaiko Foru Aldundiko kultur ekintzako zerbitzuburuak, eta gaur arratsaldean, 18:00etan, El Regaton bere erakusketa aurkeztuko duen Denisse Ariana Pérez eta Paloma Rincon argazkilariek azaldu dituzte hitzordu honen xehetasunak

udalerriko erdiguneko Bide Onera Plazan: Sail Nagusiko 6 argazkilari eta Emakume Argazkilarien BAFFEST 2021 Lehiaketaren finalista diren beste 6.

Paloma Rinconek, Ione Saizarrek, Tatjana Schlörek, Deneb Martosek, Denisse Ariana Perezek eta Maria Azkaratek, 2020ko Lehiaketaren irabazleak, formatu handiko argazkiak erakutsiko dizkiete ikusleei, bakoitza gai batekin, bakoitza hausnarketa batekin, bisitari bakoitzak eman gura diona, hain zuzen ere.

Era berean, Barakaldoko kale eta espazioetatik egin ahal izango duten ibilbidean, ikusleek, BAFFEST 2021 lehiaketako 6 finalisten, Cris P. Lareo, Andrea Aguilera, Sara Santos, Manuela Lorente, Rocio Bueno eta Elba Haxel argazkilarien, erakusketekin egingo dute topo. Gogorarazi behar da urriaren 9an, Clara Campoamor Kultur Etxean egingo den BAFFEST Argazki Egunarekin bat etorriz, finalistek euren lanak epaimahaiaren aurrean defendatuko dituztela eta arratsaldean bi sariak emango direla: Barakaldo Saria, euskal emakume argazkilari onenari, eta BAFFEST Saria estatuko emakume argazkilari onenari.

Irailean ere izan da erakusketa eta argazkilari gehiago. Zehazki 10, "Sortu. Errebelatu. Orekatu" erakusketan parte hartu dutenak: Yone Estívariz, Ura Iturralde, Maied Urrutia, Izaskun Luengas, Ainhoa Resano, Ana Martín, Arantza Elejabeitia, Lola Guerricaechebarria, Jennifer Custodio eta María Aurtenechea.

Prentsaurrekoaren ostean, inguruko hainbat erakusketa bisitatu dira eta, arratsaldean, hitzordua 18:00etan izango da El Regaton, Denisse Ariana Perez argazkilariaren erakusketaren inaugurazioarekin. Denentzat irekia izango den bisitaldia elizatik abiatuko da, eta argazkilaria bera eta Miren Pastor jaialdiko komisarioa izango dira.

Jarduera paraleloen egutegia

Jaialdiak jende guztiari zuzendutako doako jarduera paraleloen programazio osoa biltzen du aurtengo eskaintza osatzeko:

Urriak 9, larunbata

10:00: BAFFEST Argazki Eguna

- Clara Campoamor Kultur Etxea: Emakume Argazkilarien BAFFEST 2021 Lehiaketako 6 finalisten lanak aurrez aurre ikusiko dira epaimahaiaren aurrean. Jendeari irekitako oso edukiera txikia.
- 12:45: Roberto Villalonek eta Miren Pastorrek gidatutako jende guztiarentzako bisita irekia Bide Onera plazatik abiatuta.
- Arratsaldean (17:00), Clara Campoamor Kultur Etxean:

- Mahai-ingurua Maria Azkarate, Deneb Martos eta Tatjana Schlör argazkilariekin eta Miren Pastorrekin.
- "Esto es un cuerpo" argazki aldizkariaren aurkezpena.
- Emakume Argazkilarien BAFFEST 2021 Lehiaketaren bi sarien banaketa. Nagore Legarreta lehiaketaren arduradunak banatuko ditu sariak.

Igandea, urriak 10

Goizean (10-14:00), BIC Bizkaia Ezkerraldean (Barakaldo), izena eman ondoren:

- Umeentzako "Zianotipia esperimental" tailerra. Maied Urrutiak emango du, 8-12 urteko umeentzat.
- Argazki-tailer praktikoa, Elisa González Miralles argazkilaria emango du (helduentzat).
- Izen ematea baffest@baffest.eus bidez

Larunbata, urriak 16:

- 12:30ean: Bisita gidatua Bide Onera plazatik abiatuta.

Osteguna, urriak 21:

- Asuntzi Martínez argazkilaria argazki-poema liburua aurkeztuko da Clara Campoamor Kultur Etxean. Arratsaldeko ordutegia, sare sozialen bidez iragarriko da.

Osteguna, urriak 28:

- Susana González eta Silvia Ayerraren "Las Hijas del barrio" proiektuaren aurkezpena Clara Campoamor Kultur Etxean. Arratsaldeko ordutegia, sare sozialen bidez iragarriko da.

Larunbata, urriak 30:

- 12:00: bisita gidatua Bide Onera plazatik abiatuta + Argazki Solidarioa, Foruen pasealekuan, Barakaldoko Evoke argazki-elkartarekin batera.

www.baffest.eus

www.facebook.com/baffest

www.twitter.com/baffest_eus

www.instagram.com/baffest.eus